

Etikak bi dimentsio ditu: etika teorikoa eta praktikoa.

Etika teorikoari dagokionez, filosofiaren lan tresna bat da, zeinaren funtzioa morala aztertzea den. Gure kasuan, dietista-nutrizionista baten morala aztertzea izango da etika teorikoaren helburua, beraien jokabideak aztertuz, hauen inguruan hausnartuz eta horrela profesional hauen zereginak zein arau eta balore moralak ulertu ahal izateko. Etengabeko hausnarketa honek etika teorikoa garai eta eskakizun berrietara egokitzea baimentzen du; baita ingurukoei on egiten badie, mantentzea ere.

Etika teorikoak ekintza bat argudiatzeko, justifikatzeko edo bat edo bestea hobesteko elementu teorikoak ematen ditu. Beregain barnebiltzen ditu giza eskubideei dagokienez, profesional moduan dauzkagun eskubide eta bete-beharrak, ingurukoekiko errespetua eta giza duintasuna, besteak beste.

Praktikari dagokionez, profesionalki lortutako esperientziaren bitartez etika praktikan jartzea izango litzateke. Horretarako, aurrez esan bezala, morala ezagutu behar da. Gure kasuan, pertsona gaixo zein osasuntsuen nutrizio zein alimentazioa zaintzea izango da egin beharrekoa.

Etikak lengoaia konkretu bat darabil bere kontzeptuak argitzeko. Historikoki, zeinbait kontzeptuk berebiziko garrantzia eta garapena izan dute. Batetik, etikaren oinarrian dagoen giza duintasuna: pertsonak ordezkaezinak gara, hori dela eta, gure artean berdintasuna egon behar da. Gainera, Informazio/datuen konfidentzialtasuna eta norbanakoaren autonomia errespetatu behar dira. Bigarren kontzeptua Giza Eskubideak izango dira. Horien artean guretzako garrantzitsuenak elikadurarako eta nutriziorako eskubidea eta osasunerako eskubidea.

Etikak, badu bioetika izeneko alor bat, non osasungintzako lanbideen etika jorratzen duen. Bertan barnebiltzen dira alor honetan lanean jarduten duten profesionalak kontuan hartu beharreko zenbait kontzeptu.

Banakotasuna zein berezitasuna eta pazienteen integritatea: kontuan hartu behar dira kolektibo, familia zein pertsona bakoitzaren balore, sinesmen eta ohiturak; hauen arabera izango baita pertsona hauek duten bizitzaren ikuspegia.

Autonomia: zuzenean eragin dezake gizabanakoak tratamendu nutrizionalaren gain izango duen erantzuna, edo konpromisua ere. Hau errespetagarria da kasu guztietan.

Ongitza-ez gaizkitzaren printzipioa: arriskuen eta onuren arteko balantzea egin behar da; hau da, onuren artean onena hautatzea eta arriskuen edo kalteen artean txikiena aukeratzea, betiere orokorrean guztientzako biderik egokiena aukertzen jakitea.

Fidagarritasuna: adostutakoa betetzea.

Justizia: berdintasuna eta ekitatea bereiztea. Berdintasunaren arabera, pertsona guztiek eskubide berak dituzte; sexu, arraza edo bestelako ezaugarriekin zerikusirik ez dutenak. Ekitateak berriz, esaten du bakoitzak bere gaitasunen arabera jaso eta emango duela.

Gure erantzukizuna profesional gisa elikadurarako, nutriziorako eta osasunerako eskubidea bermatzea da. Izan ere, hainbat herrialdeetan desnutrizioaren ondorioz dagoen heriotza-tasak eskubide hauek betetzen ez direla erakusten du. Hala ere, beharrezkoa da lehendabizi giza eskubideen adierazpen unibertsala kontuan izatea gerora eskubide hauek aitortzeko. Baina hau ez da nahikoa, ezinbestekoa da profesionalak berak eskubideak aitortzen dituen legea barneratzea eta ziurtasunez betetzea. Era berean, eskubideen bortxaketa ematen denean, beharrezkoa da hau salatzea. Honetan datza etika, nahiz eta eskubideen bortxaketa zuk ez egin, zure aurrean gertatu bada, ez ikusiarena egitea ondo dagoen ala ez jakitea da; eta esan bezala hau nutrizionista-dietista profesionalaren

sentikortasunaren araberakoa izango da. Horregatik profesionalek frogatu behar dute beren presentzia lege hauek egiterakoan beharrezkoa dela; pertsonen ongizatearen arduradunak direlako.

**1.TALDEA:**Ainara Ruiz de Larramendi, Ane Azkarate, Maria Otaegui, Edurne Gonzalez